

ZELANDA



Zelanda (2021, Etxarri Aranatz, Nafarroa). Zelanda taldearen proiektua Fran Urias musikariarena da, berak eraiki du talde horren mamia eta funtsa. Hesian taldeari makina bat urte eskaini ondoren, eta hura desegin ostean 2020an, sorkuntzaren inertziak ez du izan etenik Fran Uriasen buruan. Kantuak egiteko grina etengabea da. Kantuei eta taldeari biribiltasuna emateko ingurura begiratu du, eta azken boladan taldekide izandako Ane Bastida baxu-jotzailea ekarri du proiektu berrira. Anek, bestalde, Iñaki Bastida anaia ekarri du. Gerora batu dira Iker Toral eta Lander Anton. Orduan, Zelanda dira Fran Urias (gitarra eta ahots nagusia), Ane Bastida (baxua), Iñaki Bastida (bateria), Lander Anton (teklatuak eta ahotsak) eta Iker Toral (gitarra eta ahotsak).

Zelanda taldearen estreinako diskoa (Zelanda, Baga-Biga, 2022) Zestoako Gaztain estudioan grabatu, ekoiztu eta nahastu du Eñaut Gaztañagak 2021ean. Musika eta hitzak Fran Uriasenak dira. Ainhoa Arroitauregik ahotsa sartu du "Nire errua" abestian. Olatz Salvadorrek abestu du "Non geratu dira" kantuan. Diskoaren diseinua Anai Melendezek egin du.

Zelanda taldearen lehen diskoan emozioa, nostalgia, sakontasuna eta metaforak dira askotan agertuko diren musika sentsazioak. Rocka eta poparen arteko uztarketa bikaina lortu du Zelanda taldeak, eta lagungarri etorri zaizkio Eñaut Gaztañagak osatutako koltxoi elektronikoak. Kantuek ukitu horren babesean dute nortasun handiagoa. Ahotsa indarra du, baina sentsibilitatek kantatuko abestiak dira. Dena amultsuagoa bilakatu da, Zelanda taldearen power-pop leloak gure burmuinetan geratuko dira modu atseginean. Sintein ukituek Zelandaren pop-rocka hunkigarriagoa bilakatu dute.

IPARRA GALDU

Egindako lehen abestia, Hesian taldearentzat izan behar zuen, proiektu hura erabat bizirik baitzegoen. Momentu zail eta ilun batean idatzitako hitzak dira. Idatzi ahala ordea, argitasun pixkat ikusten hasi nintzen eta abestian horren isla txiki bat badago. Biribil geratu zen, oso kohesionatuta eta poetikoa. Musika oinarri eta egitura oso sinplea daukan abestia da, baina gero dinamika progresiboa hartu zuen, estrofa ez dira errepikakorrek egiten eta estribiloan indar handiz sartzen da.

NON GERATU DIRA

Diskoko abestirik handiena da, epikoena. Ez naiz gehiegitan auzartzen 3/4 edo 6/8 konpasetan abestiak egitera, baina emaitzekin gustora geratu izan naiz beti. Lan handia egin du Eñaut Gaztañagak ekoizpenean, eta gero Olatz Salvadorren ahotsaren ekarpenak txundituta utzi gintuen. Abestia pausuz-pausu eta gutxinaka bihurtu zen diskoko single esanguratsuenan, guretzat. Letra honek ere maitasunari buruzkoa dela ematen du, baina ez. Dena den, norberak nahi duen bezala interpretatu dezake, eta hori ederra da.

BELTZETIK ILUNERA

Diskoko abestirik laburrena eta zuzenena, intentsoena. Jauzi handia dago estrofetatik estribiloetara, eta horrek Green Day taldearen itxura ematen dio, kasu honetan bestelako iturri batzuk izan banituen ere. Doinuak jatorrian folkarekin zerikusi gehiago zeukaten, baina emaitza bestelakoa izan da. Zuzenean gustora jotzen den abestia da. Harreman bat deskribatzen du, egunerokotasunetik harreman beraren esentziara.

TXIKIA

Letra nostalgikoa da, tristea, umore berezi puntu batekin. Batzuetan geure burua mundu honetan nola ikusten dugun azaltzen du, ikuspegi oso negatibo batetik: txikia, zaharra, zatarra, ahaztua, izutua... Oso biribila da letra baina esanahi guztia ez dugu azalduko, bestela magia puntu hori galduko luke. Musikalki sinplea da. Arpegioek aparteko ukitua eman diote, sakontasuna, eta ondoren datorren leloak indar gehiago eduki dezan bidea egiten dute. Oso biribila da, eta hasten den bezala du amaiera.

HELMUGAREN AURREAN

Oso mementu malenkoniatsu batean idatzi nuen, eta bai musika eta baita hitzak ere emozio horri erabat lotuta daude. Lasai edo astiro hasten da kantua, gerora intentsitate asko hartu arren. Hitza metaforikoak dira, amets batean bizi izandako irudi surrealistik bezala.

MENDI GAILURRETAN

Maitasun kantua da. Estribiloan, nolabait, maitasuna zer den definitzen da. Maitasun egoera ezberdinak deskribatzen ditu. Rock klasikora edota countryra hurbiltzen da (Social Distortion, Bon Jovi...), eta daraman eritmoagatik balada bezala klasifikatu daiteke, soinu aldeetik horrela ez bada ere. Xumea da eta ez du konplexutasunik.

AMARENA

Benetako esperientzia bat kontatzen du, borroka emozional handi bat utziko duena; amak galdutako umeak aukera eman dio beste bizitza bati, haren ordekoari. Rock konpeta modernoan sehaskan kulunkatzen da. Gitarra zorrotzak leuntzen dituen oinarrietan du babesa, power-pop malenkoniatsua. Lelo arin eta eraginkorak. Ahots sentikorak lelo aparretan biribilduta.

NIRE ERRUA

Zenbat buelta eman dizkiodan abesti honi... orduak eta orduak. Estribilloa argi izan nuen hasieratik, baina kostatu zitzaidan gainontzeko guztia aurkitzea eta harekin gustora geratzea. Diskoko abestirik poperoena da, agian. Ez da maitasun kantu bat, hori ematen duen arren. Itsasoari begira etortzen zitzaizkidan irudiak islatzen saiatu naiz. Ainhoa Arroitauregiren ahotsak abestia ikaragarri edertu eta argitu du. Beste abesti bat litzateke bera gabe.

ZELANDA

Fran Urias: gitarra, ahots nagusia

Ane Bastida: baxua

Iñaki Bastida: bateria

Lander Anton: teklatuak, ahotsak

Iker Toral: gitarra, ahotsak

Xabi Torralba: zuzeneko soinu teknikaria

Gontzal Basterretxea: zuzeneko agertokiko teknikaria

baga-biga + fran urias (2022ko azaroa)

 @zelanda_taldea

 www.facebook.com/Zelandataldea

 @ZelandaTaldea



Tel: 659 975 820 - 618 072 026 / 221 PK. 48100 Mungia (Bizkaia)
www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus